



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

X. legegintzaldia

Iruña, 2021eko maiatzaren 4a

57. ZK.

A U R K I B I D E A

E S A I L A:

Interpelazioak, mozioak eta adierazpen politikoak:

- Interpelazioa, laneko arriskuen prebentzioaren arloko politika orokorrari buruzkoa. Izquierda-Ezkerra talde parlamentario mistoak aurkeztu du (3. or.).
- Interpelazioa, COVID-19ak eragindako krisiaren ondorioak gazteen artean ekiditeko politika orokorrari buruzkoa. Ángel Ansa Echeagaray jaunak aurkeztu du (4. or.).
- Mozioa. Horren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen da arriskuko taldeak sar ditzan txertatzeko lehen-tasuna duten taldeen artean. Cristina Ibarrola Guillén andreak aurkeztu du (4. or.).
- Mozioa. Horren bidez Nafarroako Gobernua eta Osasun Departamentua premiatzen dira errefusa dezaten Ministerioaren eskaintza, mutualitateei txertatzeko ahalmena ematekoa. Domingo González Martínez jaunak aurkeztu du (6. or.).
- Mozioa. Horren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen da osasunaren arloko inbertsioen plan bat taxutu dezan. Cristina Ibarrola Guillén andreak aurkeztu du (7. or.).
- Mozioa. Horren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen da Errioxa Jatorri Deitura Kalifikatua zatitzeko ekimena errefusa dezan eta nafar ekoizleen interesak defenda ditzan. Miguel Bujanda Cirauqui jaunak aurkeztu du (8. or.).
- Mozioa. Horren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen da Castejongo tren-geltokiko txartel-salmentako zerbitzu presentziala (txarteldegia) eta bezeroari arreta ematekoa laster berrezartzearen alde egin dezan Estatuko Gobernuaren aitzinean. Izquierda-Ezkerra talde parlamentario mistoak aurkeztu du (9. or.).
- Mozioa. Horren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen da Nafarroako Kultur Ondareari buruzko 15/2005 Foru Legea alda dezan, Nafarroako Kultur Eskubideei buruzko urtarrilaren 15eko 1/2019 Foru Legean ezarritakora egokitzeko. Jabi Arakama Urtiaga jaunak aurkeztu du (10. or.).
- Mozioa. Horren bidez Osasun eta Eskubide Sozialetako departamentuak premiatzen dira batera lan egin dezaten, auzoetan eta herrietan pertsona zaharren aldeko itunak bultzatzeko eta garatzeko. Patricia Perales Hurtado andreak aurkeztu du (11. or.).
- Mozioa. Horren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen da intsulina-mendeko 2 motako diabetikoentzako glukosa-sentsoreak finantza ditzan. Cristina Ibarrola Guillén andreak aurkeztu du (12. or.).

—Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da ikastetxeen autonomia errespetatuz, PAI-tik irteteko eskaera egiten duten ikastetxeei programatik irteteko prozesua erraztuta. Hezkuntza Bazardeak ezetsi du (13. or.).

F SAILA:

Galderak:

- Galdera, 20/2020 Foru Legearen hamazazpigarren xedapen gehigarria–pentsiorik baxuenak osatzearen ingurukoa– aldezteari buruzkoa. Adolfo Araiz Flamarique jaunak egin du (14. or.).
- Galdera, heldu den ikasturterako iragarritako berrikuntzei buruzkoa. Ramón Alzórriz Goñi jaunak egin du (15. or.).
- Galdera, Fagor Ederlanen Tafallako instalazioetan bateriak mihiztatzeko planta bat egonen dela egindako iragarpenari buruzkoa. José Javier Esparza Abaurrea jaunak egin du (15. or.).
- Galdera, azaroaren 28ko 765E/2017 ebazpena betetzeari buruzkoa, zeinaren bidez onetsi baitzen Baztango Aroztegia jauregiaren inguruko turismo, hotel, kirol eta egoitza eremuaren Udalez gaindiko Plan Sektorialaren urbanizazio proiektua. Uxue Barcos Berruezo andreak egin du (16. or.).
- Galdera, udan zehar jarduerak eta ekitaldiak antolatzeari buruzkoa. Mikel Buil García jaunak egin du (16. or.).
- Galdera, COVID-19aren kutsatzeak ekiditeko edo murrizteko eta maiatzaren 9tik aitzinean segurtasun juridikoa bermatzeko aurreikusten diren neurriei buruzkoa. María Luisa De Simón Caballero andreak egin du (17. or.).
- Galdera, 0tik 3 urtera bitarteko ikastetxeetako tarifak murrizteari buruzkoa. Galdera erretiratzea (18. or.).

E saila:
INTERPELAZIOAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

Interpelazioa, laneko arriskuen prebentzioaren arloko politika orokorrari buruzkoa.

IZQUIERDA-EZKERRA TALDE PARLAMENTARIO MISTOAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko maiatzaren 3an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Izquierda-Ezkerra talde parlamentario mistoak aurkezturiko interpelazioa, laneko arriskuen prebentzioaren arloko politika orokorrari buruzkoa.

2. Interpelazio hori Osoko Bilkuran izapidez.

3. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2021eko maiatzaren 3an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

INTERPELAZIOAREN TESTUA

Izquierda-Ezkerra talde parlamentario mistoaren eledun Marisa De Simón Caballero andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako interpelazio hau aurkezten du, kontroleko kasuko Osoko Bilkuraren gai-zerrendan sar dadin.

Lan-istripuen tasa oso handia da oraindik ere Nafarroan. 2020ko datuak oso txarrak izan dira, COVID-19aren eraginez lan-jarduera jaitsi den arren.

CCOO sindikatuak emandako datuen arabera, Nafarroan 9.410 lan-istripu bajadun gertatu ziren iaz. Horietako 8.573 lanpostuan bertan gertatu ziren, eta 837, berriz, in itinere. Jaitsiera % 18,7a izan zen 2019arekin alderatuta; estatuan, aldiz, % 23,5ekoa izan zen jaitsiera.

Intzidentzia-tasa –hau da, 100.000 biztanleko istripu-kopurua– oso handia da oraindik ere Nafa-

rron. Nafarroan, 2020an, 307 istripukoa izan zen; estatuan, berriz, 236koa.

Nafarroa 2015etik aitzina estatuko batez bestekoaren gainetik dago lan-istripuei dagokienez. Argi dago laneko arriskuen prebentzio-programetan egindako murrizketek kalte egin diotela laneko segurtasunari.

Lan-istripuen tasaren bilakaerari buruz 2020ko abenduan egindako txostenak egoera horri buruzko datu zehatzak ematen ditu. 2020an 17 lan-istripu hilgarri eta 17 lan-istripu larri gertatu ziren. Kopuru horiek onartezinak dira.

Nafarroako Osasun Publikoaren Institutuaren arabera, lan-istripuen atzean antolamendu eta prebentzioaren kudeaketa arloko faktoreak daude.

Lan-istripuek goraka egiten jarraitzen dute nekazaritzan eta industrian, non etengabe goraka egin baitute azken lan-erreforma onetsi zenetik – 2012tik– hona, 2008ko krisitik irteten hasi ginen urtearekin bat.

Argi dago ezen lan-erreforma aplikatzearen ondorioz lan-baldintzak okertu izanak kalte egin diola laneko segurtasunari eta zerbitzu horiek kanpoan kontratatzeak ez daukala prebentzio-sisteman eragin onik.

Horregatik guztiagatik, Izquierda-Ezkerra talde parlamentario mistoak, Nafarroako “datu txar txarrak” ikusita, lan-istripuen tasa jaiste aldera laneko arriskuen prebentzioaren arloan darabilen politika orokorrari buruzko interpelazio hau aurkezten dio Nafarroako Gobernuari.

Iruñean, 2021eko apirilaren 27an

Foru parlamentaria: Marisa de Simón Caballero

Interpelazioa, COVID-19ak eragindako krisiaren ondorioak gazteen artean ekiditeko politika orokorrari buruzkoa.

ÁNGEL ANSA ECHEGARAY JAUNAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko maiatzaren 3an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ángel Ansa Echegaray jaunak aurkezturiko interpelazioa, COVID-19ak eragindako krisiaren ondorioak gazteen artean ekiditeko politika orokorrari buruzkoa.

2. Interpelazio hori Osoko Bilkuran izapidetzea.

3. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2021eko maiatzaren 3an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

INTERPELAZIOAREN TESTUA

Navarra Suma talde parlamentarioak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, COVID-19ak eragindako krisiaren ondorioak gazteen artean ekiditeko politika orokorrari buruzko interpelazio hau aurkezten dio Gobernuari, Osoko Bilkuran eztabaidatzeko.

Zioen azalpena

Nafar gazteek arazo larriak dauzkate pandemiaren ondorioz, bereziki enpleguaren eta etxebizitzaren alorretan. Hortaz, jakin nahi dugu ea Nafarroako Gobernuak zer neurri hartuko dituen, orain arte hartutakoak ez direlako arlo horietako datu negatiboak hobetzen ari.

Iruñean, 2021eko apirilaren 27an

Foru parlamentaria: Ángel Ansa Echegaray

Mozioa. Horren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen da arriskuko taldeak sar ditzan txertatzeko lehentasuna duten taldeen artean.

CRISTINA IBARROLA GUILLÉN ANDREAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko maiatzaren 3an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hurrengo erabakia hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Cristina Ibarrola Guillén andreak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita arriskuko taldeak sar ditzan txertatzeko lehentasuna duten taldeen artean.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osasun Batzordean izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2021eko maiatzaren 3an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

MOZIOAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma (NA+) talde parlamentarioari atxikia dagoen Cristina Ibarrola Guillén andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako presako mozio hau aurkezten du, Osasun Batzordean eztabaidatzeko. Mozioaren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da arriskuko taldeak sar ditzan txertatzeko lehentasuna duten taldeen artean:

Ebidentzia zientifikoa dago COVID-19agatiko infekzioak arrisku handiagoa dakarrela patologia hauek dituzten pertsonengan: esklerosi anizkoi-tza, AEA (alboko esklerosi amiotrofikoa), demen-tziak, bestelako alterazio neurodegeneratiboak, patologia kardiobaskularrak, arnasketakoak, gibel-lekoak, diabetesa eta obesitate morbida; bai eta gaixotasun arraroak edo minbizia dituzten per-sonengan edo immunodeprimituengan ere. Horietako asko Ministerioaren txertaketa-

estrategiaren 7. taldean arrisku oso handikotzat jotzen diren kolektiboetatik kanpo geratu dira.

Osasun Departamentuaren datu-baseek aukera ematen dute arrisku-patologiak dituzten pertsonak identifikatzeko, eta horrek erraztu egingen luke txertoa jarri beharreko azpitaldeak lehenetsia, gaixotze-tasa eta adina kontuan hartuta, eta, horrela, arriskuaren araberrako estratifikazio zehatzagoa egitea.

Osasun Ministerioaren txertaketa-estrategiaren 3B taldean, praktika klinikoak egiten dituzten ikasle sanitarioak eta soziosanitarioak sartzen dira. Nafarroan Medikuntzako eta Erizaintzako ikasleei jarri zaie txertoa, baina ez zaie txertoa bermatzen Mendekotasuna duten pertsoneri arreta egiteko teknikaria izateko ikasten ari diren eta praktikak Nafarroako hainbat herritako egoitzetan egiten ari diren ikasleei.

Egia da egoitzetako egoiliarrei eta langileei txertoa jartzeak asko murriztu duela arriskua zentro horietan, baina ezin dugu ahaztu COVID-19ak Nafarroako adinekoen egoitza-zentroetan duen eragin dramatikoak, eta beharrezkoa da prebentzio-neurriak muturreraino eramatea eta egoiliarren osasun-arretako, arreta soziosanitarioko edo zaintzako lanak egiten dituen pertsona oro txertatzea. Ildo horretan, lehentasunezkoa da adinekoen edo desgaituen egoitzetan praktikak egiten dituzten ikasleak txertatzea.

Txertaketa-estrategiak mendetasun handikotzat jotzen diren pertsonak eta pertsona horiek artatzen dituzten zaintzaile profesionalak hartzen ditu barnean. Nafarroan mendetasun handia duten pertsonen bi bizikideri jartzen ari zaie txertoa, baina ez dira kanpainan sartzen ari mendetasun handia duten 16 urtetik beherako zain-
tzaileak edo bizikideak; izan ere, hala egingen balitz, ahultasun handiko pertsonen arriskua murriztuko litzateke.

Era berean, Nafarroan ez zaie txertoa jartzea bermatzen ari txertaketa-lanetan edo kalteberatasun handiko pertsoneri zuzeneko arreta emateko beste lan batzuetan parte hartzen ari diren langile boluntario guztiei; horiek, izan ere, Ministerioaren Estrategiak 2. taldean biltzen ditu.

Hori guztia dela-eta, honako erabaki proposamen hau aurkezten da:

1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuko Osasun Departamentua premiatzen du honako arrisku-talde hauei txertoa berehala jar diezaien:

a. Adinekoen edo desgaituen egoitzetan praktikak egiten dituzten ikasleak.

b. Mendetasun handia duten 16 urtetik beherako zain-
tzaileak edo bizikideak, mendetasun handia duten 16 urtetik gorako pertsonen zain-
tzaileen eta bizikideen baldintza berdinetan.

c. Txertaketa-lanetan edo kalteberatasun handiko pertsonekin osasun-arretako, arreta soziosanitarioko edo zaintzako lanetan parte hartzen ari diren langile boluntarioak.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuko Osasun Departamentua premiatzen du lehentasunezko txertaketa-taldeetan sar ditzan AEA (alboko esklerosi amiotrofikoa) eta Ministerioaren txertaketa-estrategiaren 7. taldean sartuta ez dauden arrisku handiko beste egoera kliniko konplexu batzuk dituzten pertsonak.

3. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuko Osasun Departamentua premiatzen du txertaketaren lehentasunak balora ditzan adin-
talde bakoitzaren barruko arrisku-estratifikazioa-
ren arabera.

Iruñean, 2021eko apirilaren 26an

Foru parlamentaria: Cristina Ibarrola Guillén

Mozioa. Horren bidez Nafarroako Gobernua eta Osasun Departamentua premiatzen dira errefusa dezaten Ministerioaren eskaintza, mutualitateei txertatzeko ahalmena ematekoa.

DOMINGO GONZÁLEZ MARTÍNEZ JAUNAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko maiatzaren 3an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hurrengo erabakia hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Domingo González Martínez jaunak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua eta Osasun Departamentua premiatzen baitira errefusa dezaten Ministerioaren eskaintza, mutualitateei txertatzeko ahalmena ematekoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osasun Batzordean izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2021eko maiatzaren 3an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

MOZIOAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioko foru parlamentari Txomin González Martínezek, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako mozio hau aurkezten du, Osasun Batzordean eztabaidatu eta bozkatzeko.

Gizarte Segurantzako ministro José Luis Escrivák adierazi du laster hitzarmen bat sinatuko duela CEOErekin eta Gizarte Segurantzaren mutualitate laguntzaileekin, entitate horiek parte har dezaten COVID-19aren aurkako txertaketan.

Informazioak ez du zehazten entitate horiek nola parte hartu ahal duten. Ez du argitzen txertoak emanen zaizkien langileei beren instalazioetan jar diezazkieten, mutualitateetako langileei dei eginen zaien sistema publikoko langileekin batera jardun dezaten egun dauden txertatzeko guneetan, edota nola helaraziko den txertaturikoei eta txertatu gabekoei buruzko informazioa pertsona bakoitzaren historia klinikora.

Ministroaren arabera, Gobernuaren xedea da txertatzeko gune gehiago izatea, eta aipatu du "enpresei txertoak erosteko aukera ematea, beren langileak immunizatuz". Horretatik ondoriozta daiteke mutualitateen egoitzetan txertoak jarriko direla eta ez dela baztertzeko enpresei txertoak zuzenean erosteko aukera ematea.

Nafarroako Osasun Plataformak salatu duen moduan, bi erabaki horien ondorioz osasun arloko desberdinkeria –Osasunaren Mundu Erakundearen arabera, bidegabeak eta saihegarriak diren osasun egoeraren desberdintasunak– areagotu egingen da.

Lehenengoari dagokionez. Txertatzeko lehen-tasuna ematen zaie enplegua dute pertsonen langabetuen aurretik. Bigarrena: enpresek beren langileentzat txertoak zuzenean erosteko aukera ez baztertzeko, ministroak egiten duen moduan, desberdinkeria atea zabaltzen du, baliabide gehien dutenen mesedetan.

Ministroak dio hitzarmenean jasoko dela mutualitateek errespetatu beharko dituztela osasun-agintaritzak txertoa jartzeko ezarritako lehen-tasun-irizpideak. Tamalez, esperientziak erakutsi digu jardura horiek enpresa pribatuen esku uzten direnean erabat ezinezkoa dela txertatzeko irizpideak bermatzea, hala ikusi dugu Nafarroan osasun arloko enpresa pribatuen txertaketaren kasuan.

Mutualitateen zuzendaritzek edota Gizarte Segurantzarekin sinatuko duten hitzarmenak esaten dutena esanda ere, esperientziak eta entitate horien izaerak bidea ematen digute baieztatuzko ziurrenik bata bestearen ondotik txertatuko dituztela langileak, enpresetako zuzendaritzetatik eta enpresa handienetatik hasita, eta oinarriko langileak, mikroenpresak eta autonomoak azkenak izanen direla.

Ministroak dio sinatuko den hitzarmenak ahalbidetuko duela mutualitateek autonomia-erkidegoen eskura jartzea hurrengo hilabeteetan beren ahalmen logistikoa eta osasun arloko langileak.

Hori dela-eta, honako erabaki proposamen hau aurkezten dugu:

1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua eta Osasun Departamentua premiatzen ditu errefusa dezaten Ministerioaren eskaintza, mutualitateei txertatzeko ahalmena ematekoa.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du, justifikaturiko beharra izanez gero, ahalbidetu dezan mutualitateen giza baliabideak eta baliabide materialak Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuaren esku jartzeko, herritar guztiak txertatzeko langileak eta baliabideak areagotzeko xedez.

Iruñean, 2021eko apirilaren 27an

Foru parlamentaria: Txomin González Martínez

Mozioa. Horren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen da osasunaren arloko inbertsioen plan bat taxutu dezan.

CRISTINA IBARROLA GUILLÉN ANDREAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko maiatzaren 3an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hurrengo erabakia hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Cristina Ibarrola Guillén andreak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita osasunaren arloko inbertsioen plan bat taxutu dezan.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osasun Batzordean izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2021eko maiatzaren 3an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

MOZIOAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma (NA+) talde parlamentarioari atxikia dagoen Cristina Ibarrola Guillén andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako mozio hau aurkezten du, Osasun Batzordean eztabaidatzeko. Mozioaren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da, osasunaren arloko inbertsioen plan bat taxutu dezan.

Nafarroako Gobernuak Aurrekontu Orokorretan osasunaren arloko inbertsioetara bideratutako aurrekontua Osasun Departamentuaren aurrekontuaren % 3,3 baino ez du egiten.

Osasunaren arloko inbertsioen beharrizan ugari daude osasun teknologiak eta azpiegiturak

egokitzeko bikaintasuneko osasun arretara, berri-tzailea, erabakigarria eta segurua izanen dena.

Pandemian agerian utzi du osasunaren arloan kalitatezko azpiegiturak eta teknologiak edukitzearen garrantzia eta, gainera, inbertsio berriak egiteko beharra, esate baterako, osasun zentroetako eremuen egokitzapena zirkuitu bikoitza edukitzeko, telemedikuntzaren garapen aurreratu, osasun laguntzaren beharrizan berrietara egokitzeko, Pediatriako Zainketa Berezien Unitatea bezalako azpiegitura berriak, banakako gelak, osasun zentroak eta kontsultategiak egokitzeko lanak, edo medikuntzako ekipamendurako eta osasun arloko beste teknologia batzuetarako beharrizan berriak.

Urteko aurrekontuek ezin diete erantzun global bat eman, epe ertain eta luzean, osasuneko inbertsioen beharrezane; beharrizan horien plan bat behar dugu, lehentasunak ezartze aldera, datozen urteetako aurrekontu orokorrak prestatzerakoan baliagarri izanen direnak, bai eta Europako funtsak erabiltzerakoan ere, osasunaren arloko azpiegiturak hobetzeko erabili ahal izan daitezten. Hori guztia dela-eta, honako erabaki proposamen hau aurkezten da:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuko Osasun Departamentua premiatzen du, osasunaren arloko inbertsioen partaidetzazko plan bat taxutu dezan, Nafarroako Parlamentuan aurkeztuko duena hura onesteko, 2021eko irailaren 6a baino lehen.

Iruñean, 2021eko apirilaren 27an

Foru parlamentaria: Cristina Ibarrola Guillén

Mozioa. Horren bidez Nafarroako Gobernuak premiatzen da Errioxa Jatorri Deitura Kalifikatua zatitzeko ekimena errefusa dezan eta nafar ekoizleen interesak defenda ditzan.

MIGUEL BUJANDA CIRAUQUI JAUNAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko maiatzaren 3an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, hurrengo erabakia hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Miguel Bujanda Cirauqui jaunak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernuak premiatzen baita Errioxa Jatorri Deitura Kalifikatua zatitzeko ekimena errefusa dezan eta nafar ekoizleen interesak defenda ditzan.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran izapidetzeko, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2021eko maiatzaren 3an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

MOZIOAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma talde parlamentarioari atxikita dagoen Miguel Bujanda Cirauqui jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako mozio hau aurkezten du, Osoko Bilkuran eztabaidatzeko:

Iragan uztailaren 17an EAJ-PNV euskal talde parlamentarioak proposamen bat aurkeztu zuen Diputatuen Kongresuan, Autonomiaz gaindiko lurralde-eremuetako jatorri deiturena eta adierazpen geografiko babestuen maiatzaren 12ko 6/2015 Legea aldatzeko.

Proposamen horrek eragin zuzena dauka Errioxa Jatorri Deitura Kalifikatuaren eredu, araudi eta funtzionamenduari begira; izan ere, deitura hori zatitu eta jatorri deitura berri bat sortzea bilatzen du, Eusko Jaurlaritzaren kontrolpean, baina Errioxa markaren izenari eta merkatuari uko egin gabe, Errioxako, Nafarroako eta Arabako mahastizainek eta upeltegiek hamarkadatan egindako lanaren kaltetan.

Errioxa Jatorri Deitura Kalifikatuaren osoko bilkura ekimen horren aurka azaldu da; haien esanetan, «zuzenbideko bide toles baten bidez egindako bereizketa-saiakera eta desjabetze politiko» bat da, zeinaren bidez kudeaketa-eredu independente bat sortu nahi baita, non kontrol, ikuskapen

eta zehapen ahalmenak kontseilu arauemaile bereki baten esku egonen bailirateke. Kontseilu bereki horrek erabakiko luke dena: kontra-etiketak, uztaren gaineko arauak, urtaldien kalifikazioa... Eta baitezpadakoa izanzen litzateke: inork ere ezin izanzen luke Arabako Errioxako ardoa egin Kontseilu horren kontrolik gabe.

Ekimen hori bigarrena zen jada, lehenago huts egin baitzuten deitura bereki bat sortzeko saiakera arduragabeek. Aurrekoaren aldean, ordea, oraingo honetan PSOEn adostasuna du EAJren proposamenak; beraz, Eusko Jaurlaritzaren eskuetan utziko luke erabakitzeko ahalmena, deituratik irten gabe, Errioxa Jatorri Deitura Kalifikatua osatzen duten gainontzeko erkidegoak konfiantza hartu gabe.

Beti da garrantzitsua –krisi egoera honetan are gehiago– Errioxa Jatorri Deitura Kalifikatuaren ekintza- nahiz kudeaketa-batasuna, kudeaketa eskusibotasunez esleitzea, babestutako ardoen kalitatea bermatzeko, ekoizleen eta kontsumitzaileen interesak bermatzeko. Kontseilu arauemaile kalitate eta jatorri berme hori emateko moduan da gaur egun, deitura osatzen duten hiru eremuetako bakoitzari: Arabako Errioxa, Goi Errioxa eta Ekialdeko Errioxa, non Nafarroako Foru Komunitateko upeltegiak eta mahastizainak sartzen baitira. Horrek besteengandik bereizteko tresna indartsu bat ematen die upeltegiei, baina baita konfiantza eta kalitate zigilu bat ere, lortzen asko kostatu zaiena eta ezin dena orain hutsal-tzen utzi euskal nazionalisten gose-egarriagatik.

Nafarroako Gobernuak ez du horri buruz deus ere adierazi orain arte, eta horrek ziurgabetasun handia sortu du mahastizaintza- eta ardogintza-sektore horretan.

Hori guztia dela-eta, honako erabaki proposamen hau aurkezten da:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuak premiatzen du Errioxa Jatorri Deitura Kalifikatua zatitzeko ekimena errefusa dezan eta, ukitutako eragileekin bildu ostean, Errioxa Jatorri Deitura Kalifikatuko nafar ekoizleen interesak defenda ditzan, bai Espainiako Gobernuaren bai Europako Batzordearen aitzinean.

Iruñean, 2021eko apirilaren 27an

Foru parlamentaria: Miguel Bujanda Cirauqui

Mozioa. Horren bidez Nafarroako Gobernuak premiatzen da Castejongo tren-geltokiko txartel-salmentako zerbitzu presentziala (txarteldegia) eta bezeroari arreta ematekoa laster berrezartzearen alde egin dezan Estatuko Gobernuaren aitzinean.

IZQUIERDA-EZKERRA TALDE PARLAMENTARIO MISTOAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko maiatzaren 3an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hurrengo erabakia hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Izquierda-Ezkerra talde parlamentario mistoak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernuak premiatzen baita Castejongo tren-geltokiko txartel-salmentako zerbitzu presentziala (txarteldegia) eta bezeroari arreta ematekoa laster berrezartzearen alde egin dezan Estatuko Gobernuaren aitzinean.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Lurralde Kohesiorako Batzordean izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2021eko maiatzaren 3an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

MOZIOAREN TESTUA

Izquierda-Ezkerra talde parlamentario mistoko eledun Marisa de Simón Caballero andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako mozio hau aurkezten du, Lurralde Kohesiorako Batzordean eztabaidatu eta bozkatzeko:

Historikoki trenbidea funtsezkoa izan da bidaiarien eta salgaien garraioan. Lurraldea egituratzeko elementua da eta izan da, eskualdeak eta herriak lotu dituen. Gainera, garraio publiko, sozial eta jasagarria da.

Salatua dugu Altsasuko, Tafallako eta Castejongo trenbide geltokietan txarteldegiko txartelen salmentako eta bezeroari arreta emateko zerbitzu presentziala itxi izana. Zerbitzu horiek eteteak ondorio negatiboak ditu bidaiariarentzat eta disuasio-neurri gisak eragiten du garraio kolektibo hori, merkeagoa dena eta kutsadura gutxiago sortzen duena, erabiltzerakoan.

Arreta pertsonala ez da ordeztu behar txartelen salmenta informatiko soilarekin. Informazioa eta arreta emateko eta txartelak saltzeko txarteldegia geltokia suspertzen du eta berma-

tzen du zerbitzua modu pertsonalean eskaintzea, eta hori funtsezkoa da zerbitzu integral, publiko eta kalitatezkoa emateko.

Duela urte bat eta erdi Renfek konpromisoa hartu zuen Castejongo trenbide geltokian txarteldegiko txartelen salmentako eta bezeroari arreta emateko zerbitzu presentziala berreskuratzeke, ikusita Erriberako zonalde horretan bidaiari askok egunero erabiltzen zutela geltokia.

Dakigunez, 2019ko abenduan iragarri egin zen zerbitzu horien lizitazioa Calahorrako, Monzón-Río Cincako eta Castejón de Ebroko geltokietarako; horrenbestez, esleitu gabe eta, beraz, berreskuratze gabe geratu ziren Castejongo geltokiko zerbitzuak.

Gure ustez, azken urteko erabiltzaileen jaitziera koiunturakoa izan da, pandemiaren ondorioz mugikortasunean izan diren murrizketek sortua. Egoera hori ez da aitzakia izan behar Castejongo tren geltokiko zerbitzu horien berreskurapena geroratzeko.

Castejongo trenbide geltokian txarteldegiko txartelen salmentako eta bezeroari arreta emateko zerbitzu presentzialak berreskuratzea premiazko beharrezkoa da bidaiariendako arreta hobetzeko; gainera, horrekin trenbideko garraioa sustatuko litzateke, ibilgailu partikularra erabili ordez.

Hori dela eta, ondoko erabaki proposamena aurkezten diogu Legebiltzarreko Osoko Bilkurari:

1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuak premiatzen du Castejongo tren-geltokiko txartel-salmentako zerbitzu presentziala (-txarteldegia) eta bezeroari arreta ematekoa laster berrezartzearen alde egin dezan Estatuko Gobernuaren aitzinean.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuak premiatzen du bidezko prozedurak balia dituzan Renfe enpresarekin, Castejongo tren-geltokiko txartel-salmentako zerbitzu presentziala (txarteldegia) eta bezeroari arreta ematekoa ahalik lasterren berrezartze aldera.

Iruñean, 2021eko apirilaren 28an

Eleduna: Marisa de Simón Caballero

Mozioa. Horren bidez Nafarroako Gobernuak premiatzen da Nafarroako Kultur Ondareari buruzko 15/2005 Foru Legea alda dezan, Nafarroako Kultur Eskubideei buruzko urtarrilaren 15eko 1/2019 Foru Legean ezarritakora egokitzeko.

JABI ARAKAMA URTIAGA JAUNAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko maiatzaren 3an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, hurrengo erabakia hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Jabi Arakama Urtiaga jaunak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernuak premiatzen baita Nafarroako Kultur Ondareari buruzko 15/2005 Foru Legea alda dezan, Nafarroako Kultur Eskubideei buruzko urtarrilaren 15eko 1/2019 Foru Legean ezarritakora egokitzeko.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran izapidetzeko, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2021eko maiatzaren 3an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

MOZIOAREN TESTUA

Geroa Bai talde parlamentarioko foru parlamentari Jabi Arakama Urtiagak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako mozio hau aurkeztu du, Osoko Bilkuran eztabaidatzeko.

Nafarroako Kultur Ondareari buruzko azaroaren 22ko 14/2005 Foru Legeak Nafarroako kultur ondarea zaindu, babestu, handitu eta dibulgatzeko lana arautzen du. Vianako Printzea Erakunde-Kultura Zuzendaritza Nagusiaren bitartez arduratzen da ziurtatzeaz hurrengo belaunaldiak gozatu ahal izan dezaten "gure historiaren fruitu den kultur ondare garrantzitsu eta askotarikoa", legearen zioen azalpenean ezartzen den moduan.

Ondarearen babesak kulturaren arloko politika publikoaren oinarritzeko osagaia izaten jarraitu behar du, ezertan ere eragotzi gabe gaurko garaia eskaintzen dizkigun erronka eta aukera berriei egokitu beharra.

Klima-aldaketak gero eta mehatxu handiagoa dakarrela ikusten dugu, errealitate teknologikoak aurrerabide orain dela urte batzuk imajinaezina egin du, gizartean gero eta kontzientzia handiago

dago deskarbonizazio-formula berrien aldeko apustua egin beharri buruz, eta areagotu egin dira eraikinen energia-efizientzia eta energiaren autokontsumo dezentralizatua. Gauzak horrela, gure jarduketako-estrategiak birpentsatu beharra daukagu.

Erakunde publikoek –esaterako, Nafarroako Gobernuak– bide hori egin dute, azken urteotan nabarmen handitu baitituzte energia-efizientzia eta energiaren autokontsumoko elementuak instalatzea sustatzeko laguntza publikoak. Aldi berean, gero eta udal gehiagok onesten dituzte beren udaletan –hala etxeetan nola enpresetan eta eraikin publikoetan ere– autokontsumoa ahalbidetzeko ordenantzak. Ekimen horietako askok, ordea, 14/2005 Foru Legeak ezarritako mugekin –herritarrek batzuetan, gaur egungo ikuskerarekin, nekez ulertzen dituztenekin– eta legearen irakurketa zeharo murriztaileekin egin dute topo.

Gure herri eta hirietako alde zahar gehienek despulazio-arazo handiak daukate. Testuinguru horretan, zailtasun horiek ikusita, alde zaharrak ez dira erakargarri bihurtzen herritarrentzat. Landa-ingurunean dira bereziki larriak zailtasun horiek, eta horri gehitu behar zaizkio egiturazko beste arazo batzuk, biztanleak beren herrietan finkatzea zailtzen dutenak.

Horregatik uste dugu ez garela besoak gurutzatuta gelditu behar eta proposamen anbizio-tsua eta aldi berean zorrotzak egin behar ditugula, gaur egungo egoera egokitzen dakitenak.

Bateragarri egin behar ditugu aurreko belaunaldiak laga diguten ondarearen babesa eta hori bezain garrantzitsua den beste alderdi bat, nola baita gure ingurumena –eta, finean, gure ongizatea eta gure izatea bera– arriskuan jartzen duen klima-aldaketaren aurka borrokatzea. Horretarako, funtsezkoa da gure ekonomiaren deskarbonizazioan, mugikortasunean, etxeetako, lantokieta-ko edo eraikin publikoetako energia-kontsumoan sakontzea. Une historiko honetan, energia-efizientziako eta energiaren autokontsumoko estrategiak erabakigarriak izan daitezke deskarbonizazioari begira; beraz, herritarrei, enpresei eta erakunde

publikoei baliabideak eman behar dizkiegu hori dena egiteko.

Hori guztia dela-eta, honako erabaki proposamen hau aurkezten dugu:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du:

1. Nafarroako Kultur Ondareari buruzko 15/2005 Foru Legea alda dezan, Nafarroako Kultur Eskubideei buruzko urtarrilaren 15eko 1/2019 Foru Legean ezarritakora egokitzeko, lege horiek esparru juridiko berrira egokitu behar direla ezarzen baita bertan.

2. Legearen erregelamendu bidezko garapena ezar dezan, halako moduan non bateragarriak

izan ahalko baitira Nafarroako arkitektura eta kultur ondarea zaintzeko behar diren bermeak eta ondare horren energia-efizientzia maximizatzea eta energiaren autokontsumo berriztagarriko instalazioak paratzea gure erkidegoko eraikin publiko eta pribatuetan.

3. Prozesuan bi departamentu horiek –Kultura eta Kirol Departamentua eta Lurralde Antolamenduko, Etxebizitzako, Paisaiako eta Proiektu Estrategikoetako Departamentua– eta toki entitateen nahiz ukitutako elkarten ordezkariak parte har dezaten.

Iruñean, 2021eko apirilaren 29an

Foru parlamentaria: Jabi Arakama Urriaga

Mozioa. Horren bidez Osasun eta Eskubide Sozialetako departamentuak premiatzen dira batera lan egin dezaten, auzoetan eta herrietan pertsona zaharren aldeko itunak bultzatzeko eta garatzeko.

PATRICIA PERALES HURTADO ANDREAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko maiatzaren 3an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hurrengo erabakia hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Patricia Perales Hurtado andreak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Osasun eta Eskubide Sozialetako departamentuak premiatzen baitira batera lan egin dezaten, auzoetan eta herrietan pertsona zaharren aldeko itunak bultzatzeko eta garatzeko.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Eskubide Sozialetako Batzordean izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2021eko maiatzaren 3an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

MOZIOAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioko foru parlamentari Patricia Perales Hurtado andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako mozio hau aurkezten du, Esku-

bide Sozialetako Batzordean eztabaidatu eta bozkatzeko.

“Donibaneko adinekoen aldeko Ituna” 2018an sortu zen, zahartzearen hiru zutabeei batera heltzeko: osasuna, parte-hartzea eta segurtasuna. Proiektu horretan, auzoko hainbat erakunde, kolektibo eta zerbitzuek parte hartzen dute, eta hainbat programa eskaintzen dira.

Pandemian hainbat jarduera egin dira, hala nola boluntariora, laguntza emozionala, jarduera fisikoaren eta mentalaren sustapena, eten digitala murrizteko laguntza, telefono bidezko irakurketak... Horiek guztiak auzoan bizi diren adineko askoren bakardadeari eta beldurrari aurre egiteko.

Programa horiek auzoarentzat, auzoarekin eta auzoan daude antolatuta, eta horrek, zalantzarik gabe, baloratu eta kontuan hartu beharreko onura espezifiko batzuk dakartza, hala nola:

– Auzokideen arteko harremana errazten du eta auzoaren kohesioa sustatzen du bakardadeari aurre egiteko eta horrek dakartzan ondorioak murrizteko.

– Balio handiko prebentzio-izaera du. Garrantzitsua den gai bat da, maiz garatzea kostatzen dena.

– Errazago egiten du adinekoak beren etxeetan geratu ahal izatea.

– Adinekoen parte-hartzea bultzatzen du.

– Adinekoentzako berariazko eskaintza sozio-kulturala sustatzen du.

Programen barruko jardueren aldakuntzari buruz jasotako informazioa kontuan hartuta, jarduera guztiek adinekoen premia espezifikoak identifikatu eta modu integralean erantzun nahi diete. Izan ere, proiektua erakunde-modalitatean saritu zuten, zahartze osasuntsuaren erronkari modu komunitarioan aurre egin nahi diolako.

Itun horrek frogatzen du sarean eta lankidetzan eta parte-hartzean oinarrituta lan egiteak jarduteko eta adinekoen premia espezifikoak erantzuteko gaitasun handia duela, baina, era berean, erakutsi du askoz gaitasun handiagoa duela jarduerak zabaltzeko eta pertsona gehiagorengana iristeko. Argi dago baliabideak gehituz gero arreta nabarmen hobetu daitekeela. Egungo egoera pandemikoak adineko pertsonen arteko bakarda-

de- eta isolamendu-egoera askoz gehiago eragin ditu, eta beharrezkoa da ahaleginak areagotzea modu integralean eta komunitarioan erantzunen duten sareak bultzatzeko, hobetzeko eta sortzeko, eta horretarako administrazioen laguntza behar da.

Horregatik guztiagatik:

Nafarroako Parlamentuak honako hauetara premiatzen du Nafarroako Gobernuak:

– Osasun eta Eskubide Sozialetako departamentuek batera lan egin dezaten, beste auzo eta herri batzuetan pertsona zaharren aldeko itunak bultzatzeko eta garatzeko

– Baliabide ekonomikoak eta giza baliabideak erraztu ditzan, proiektu hori handitu eta indartu ahal izateko; horrekin lortu nahi da programa gehiago eskaini eta Donibane auzoko adineko pertsona gehiagorengana iritsi ahal izatea.

Iruñean, 2021eko apirilaren 29an

Foru parlamentaria: Patricia Perales Hurtado

Mozioa. Horren bidez Nafarroako Gobernuak premiatzen da intsulimendeko 2 motako diabetikoentzako glukosa-sentsoreak finantza ditzan.

CRISTINA IBARROLA GUILLÉN ANDREAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko maiatzaren 3an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hurrengo erabakia hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Cristina Ibarrola Guillén andreak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernuak premiatzen baita intsulimendeko 2 motako diabetikoentzako glukosa-sentsoreak finantza ditzan.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osasun Batzordean izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2021eko maiatzaren 3an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

MOZIOAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma talde parlamentarioari atxikia dagoen Cristina Ibarrola Guillén andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako mozio hau aurkezten du, Osasun Batzordean eztabaidatzeko. Mozioaren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da intsulimendeko 2 motako diabetikoentzako glukosa-sentsoreak finantza ditzan.

Glukosa flash motako sentsoreen bidez monitorizatzeko sistema Osasun Sistema Nazionalako Zerbitzuen Oinarrizko Zorroan sartzen joan da.

Lehendabizi, 4tik 17ra urtera bitarteko diabetikoentzat (2018an onetsi zen). Gero, 2019an, 1 motako diabetesa duten helduentzat.

Eta 2020ko azaroan onartu da ez 1 ez 2 motako diabetes mellitusaren diagnostikoa ez duten baina intsulimendekotasuna duten gaixoentzat,

baldin eta intsulinarekin terapia trinkoa egiten badute eta egunean zehar gutxienez ere sei ziztada behar badituzte.

Halatan, paziente horiek doan baliatzen ahalko dute gluzemia-zerrenda errektiborekiko sistema alternatibo hori.

Une honetan, Osasun Ministerioa aztertzen ari da sentsore horiek finantzatzeko aukera, intsulinamendekotasuna duten 2 motako diagnostikoa duten pertsonak oinarritzko zorroan sartuta, baina ez du inolako data zehatzetarako adierazi konpromisoa.

Ekitate eza gertatzen ari da; izan ere, 2 motako diabetesa duten pertsona intsulinizatuei (egunean zehar zenbait ziztada digital behar dituztenak kontrolatzeko) osasun sistema publikoak ez dizkie flash sentsoreak finantzatzen; 1 motako diabetesa duten pertsonen, ordea, bai. Sentsore horiek bizi-kalitatea hobetzen dute, diabetesaren kontrol klinikoa ahalbidetzen dute, hipogluzemiak murrizten dituzte eta gaixotasunaren konplikazioak murrizten dituzte.

Europa osoko osasun sistema publikoek flash sentsoreak finantzatzen dizkiete dagoeneko 2

motako diabetesa duten pertsona intsulinizatuei eta intsulina azkarra behar dutenei. Salbuespena dira Espainia eta Errumania.

Osasun Sistema Nazionalaren iraunkortasuna bermatzeko eta haren prestazioen kalitatea eta segurtasuna hobetzeko presako neurriei buruzko apirilaren 20ko 18/2012 Errege Dekretuak ezartzen du autonomia erkidegoek beren zorro osagarrian sartzeko ahalko dituztela zorro komunean jasotzen ez diren teknikak, teknologiak edo prozedurak.

Hori guztia dela-eta, honako erabaki proposamen hau aurkezten da:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuko Osasun Departamentua premiatzen du gehienez ere hiru hilabeteko epean finantza ditzan flash sentsoreak 2 motako diabetesa duten pertsona intsulinizatuen eta intsulina azkarra behar dutenen kasuan.

Iruñean, 2021eko apirilaren 29an

Foru parlamentaria: Cristina Ibarrola Guillén

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da ikastetxeen autonomia errespetatuz, PAItik irteteko eskaera egiten duten ikastetxeei programatik irteteko prozesua erraztuta.

HEZKUNTZA BATZORDEAK EZETSI DU

Nafarroako Parlamentuko Hezkuntza Batzordeak, 2021eko apirilaren 28an egindako bileran, honako mozio hau ezetsi du: "Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da ikastetxeen autonomia errespetatuz, PAItik irteteko eskaera egiten duten ikastetxeei programatik irteteko prozesua erraztuta". Mozioa EH

Bildu Nafarroa talde parlamentarioak aurkeztu zuen eta 2021eko martxoaren 31ko 41. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2021eko apirilaren 29an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

F saila:
GALDERAK

**Galdera, 20/2020 Foru Legearen hamazazpigarren xedapen gehigarria
–pentsiorik baxuenak osatzearen ingurukoa– aldezteari buruzkoa.**

ADOLFO ARAIZ FLAMARIQUE JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko maiatzaren 3an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Adolfo Araiz Flamarique jaunak aurkeztutako gaurkotasun handiko galdera, 20/2020 Foru Legearen hamazazpigarren xedapen gehigarria –pentsiorik baxuenak osatzearen ingurukoa– aldezteari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2021eko maiatzaren 3an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Adolfo Araiz Flamarique jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, gaurkotasun handiko honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak maiatzaren 6ko Osoko Bilkuran erantzun dezan:

Nafarroako Gobernuak eta EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioak sinatutako aurrekontu-akordioan xedapen gehigarri bat sartu zen 2021erako Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko 20/2020 Foru Legean. Honako hau, hain zuzen ere:

“Hamazazpigarren xedapen gehigarria.

Nafarroako Gobernuak, aplikatzekoa den estatu-araudia galarazi gabe, sei hilabeteko epean azterketa bat eginen du Nafarroako pentsioen

zenbatekoen eta diru-sarreraren eta gastuen fluxuen egoera errealarari buruz, kontuan hartuta Nafarroan jada gaituta dauden osagarri fiskalen bideak. Halaber, aztertu beharko du aurrekontuentzat zer eragin izanen lukeen pentsio baxuenak osatzeak egungo Lanbide arteko Gutxieneko Soldatarekin parekatu arte, lehenik, eta 1.080 eurora iritsi arte, bigarrenik. Azterketa horretan egungo pentsio sistema publikoaren joerak baloratuko dira”.

Iragan apirilaren 26an, Nafarroako Aldizkari Ofizialak 14/2021 Ebazpena, martxoaren 31koa, Lehendakarietzako eta Gobernu Irekiko zuzendari nagusiak emana, argitaratu zuen, zeinaren bidez xedatzen baita Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzea Estatuko Administrazio Orokorren eta Nafarroako Foru Komunitatearen arteko Lankidetzaren Batzordearen Erabakia, Nafarroako 2021eko Aurrekontu Orokorrei buruzko abenduaren 29ko 20/2020 Foru Legearen gainekoa. Ebazpen horretan ezartzen zen “Nafarroako 2021eko Aurrekontu Orokorrei buruzko 20/2020 Foru Legearen hamazazpigarren xedapen gehigarriari dagokionez adierazi diren desadostasunak gainditzeko negoziazioak hastea”.

Hori ikusita, gaurkotasun handiko honako galdera hau egiten dugu, maiatzaren 6ko Osoko Bilkurarako:

Nafarroako Gobernuak nola eta zer argudioekin aldeztuko ditu xedapen gehigarri hori eta Nafarroaren eskumen fiskala, kasua bada pentsiorik baxuenak osatzen jarraitzeko?

Iruñean, 2021eko maiatzaren 2an

Foru parlamentaria: Adolfo Araiz Flamarique

Galdera, heldu den ikasturterako iragarritako berrikuntzei buruzkoa.

RAMÓN ALZÓRRIZ GOÑI JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko maiatzaren 3an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ramón Alzórriz Goñi jaunak aurkeztutako gaurkotasun handiko galdera, heldu den ikasturterako iragarritako berrikuntzei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2021eko maiatzaren 3an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioaren eledun Ramón Alzórriz Goñi jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduak ezarritakoaren babesean, gaurkotasun handiko honako galdera hau egiten du, Nafarroako Gobernuko lehendakariak 2021eko maiatzaren 6ko Osoko Bilkuran ahoz erantzuteko.

Iragan astean ezagutu genituen heldu den ikasturtean izanen diren zenbait berrikuntza garrantzitsu.

Nola zehazten ari da heldu den ikasturteari dagokiona eta iragarri diren berrikuntzen zer balorazio egiten du Nafarroako Gobernuko lehendakariak?

Iruñean, 2021eko maiatzaren 2an

Foru parlamentaria: Ramón Alzórriz Goñi

Galdera, Fagor Ederlanen Tafallako instalazioetan bateriak mihiztatzeko planta bat egonen dela egindako iragarpenari buruzkoa.

JOSÉ JAVIER ESPARZA ABAURREA JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko maiatzaren 3an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea José Javier Esparza Abaurrea jaunak aurkeztutako gaurkotasun handiko galdera, Fagor Ederlanen Tafallako instalazioetan bateriak mihiztatzeko planta bat egonen dela egindako iragarpenari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2021eko maiatzaren 3an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Navarra Suma (NA+) talde parlamentarioaren eledun Javier Esparza Abaurrea jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatutakoaren babesean, gaurkotasun handiko honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuko lehendakariak Osoko Bilkuran erantzun dezan:

Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumeneko sailburuak egindako iragarpen bati esker jakin dugu bateriak mihiztatzeko planta bat egonen dela Fagor Ederlanen Tafallako instalazioetan. Berri hori berrets al dezakezu?

Iruñean, 2021eko maiatzaren 3an

Foru parlamentaria: Javier Esparza Abaurrea

Galdera, azaroaren 28ko 765E/2017 ebazpena betetzeari buruzkoa, zeinaren bidez onetsi baitzen Baztango Aroztegia jauregiaren inguruneko turismo, hotel, kirol eta egoitza eremuaren Udalez gaindiko Plan Sektorialaren urbanizazio proiektua.

UXUE BARCOS BERRUEZO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko maiatzaren 3an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Uxue Barcos Berruezo andreak aurkeztutako gaurkotasun handiko galdera, azaroaren 28ko 765E/2017 ebazpena betetzeari buruzkoa, zeinaren bidez onetsi baitzen Baztango Aroztegia jauregiaren inguruneko turismo, hotel, kirol eta egoitza eremuaren Udalez gaindiko Plan Sektorialaren urbanizazio proiektua.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2021eko maiatzaren 3an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Geroa Bai talde parlamentarioaren eledun Uxue Barcos Berruezo andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, gaur-

kotasun handiko honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuako bigarren lehendakariorde eta Lurralde Antolamenduko, Etxebizitzako, Paisaiako eta Proiektu Estrategikoetako kontseilariak maiatzaren 6ko Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Ingurumeneko eta Lurraldearen Antolamenduko zuzendari nagusiaren azaroaren 28ko 765E/2017 ebazpenaren bidez onetsi zen Baztango Aroztegia jauregiaren inguruneko turismo, hotel, kirol eta egoitza eremuaren Udalez gaindiko Plan Sektorialaren urbanizazio proiektua. Ebazpenean, sustatzaileak bete beharreko zenbait determinazio ezarri ziren. Orain dela gutxi hedabideen bidez jakin dugu obrak hasi direla.

Hori guztia dela-eta, honako galdera hau egingen dugu:

Ebazpen horretan ezarritako determinazioak betetzen ari al dira?

Iruñean, 2021eko maiatzaren 3an

Foru parlamentaria: Miren Uxue Barcos Berruezo

Galdera, udan zehar jarduerak eta ekitaldiak antolatzeari buruzkoa.

MIKEL BUIL GARCÍA JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko maiatzaren 3an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Mikel Buil García jaunak aurkeztutako gaurkotasun handiko galdera, udan zehar jarduerak eta ekitaldiak antolatzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2021eko maiatzaren 3an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Podemos-Ahal Dugu foru parlamentarien elkartearen eledun Mikel Buil García, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, gaurkotasun handiko galdera hau aurkezten du, Osasuneko kontseilariak maiatzaren 6ko Osoko Bilkuran erantzun dezan:

Agerikoa da uda honetan ez dela talde-immunitaterik lortuko, baina jakin badakigu birusak heriotza gutxiago ekarriko duela. Hortaz, Podemos-Ahal Duguk mahai gainean jarri nahi dugu kultur programazio luze bat taxutzeko aukera, herrietako jaietan eman ohi diren jende-pilaketan ordeztu. Udan zehar banatutako jarduerak (kasuko

segurtasun-protokoloak protokolo) eta ekitaldiak, herritarrek gozatu ahal izan ditzaten eta kulturaren sektorea pairatzen ari den estualdia arintzeko balio dezaketenak.

Osasun Departamentuaren ustez, udalek eta Nafarroako Gobernuak gisa horretako kultur-egita-

rauk bultzatu beharko lituzkete baldin eta egoera epidemiologikoak horretarako bidea ematen badu?

Iruñean, 2021eko maiatzaren 3an

Foru parlamentaria: Mikel Buil García

Galdera, COVID-19aren kutsatzeak ekiditeko edo murrizteko eta maiatzaren 9tik aitzinean segurtasun juridikoa bermatzeko aurreikusten diren neurriei buruzkoa.

MARÍA LUISA DE SIMÓN CABALLERO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko maiatzaren 3an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Luisa De Simón Caballero andreak aurkeztutako gaurkotasun handiko galdera, COVID-19aren kutsatzeak ekiditeko edo murrizteko eta maiatzaren 9tik aitzinean segurtasun juridikoa bermatzeko aurreikusten diren neurriei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2021eko maiatzaren 3an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Izquierda-Ezkerra talde parlamentario mistoko Marisa de Simón Caballero andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, gaurkotasun handiko honako galdera hau egiten du, Nafarroako Gobernuak 2021eko maiatzaren 6ko Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Heldu den igandean –maiatzaren 9an–, 00:00etan, alarma-egoera bukatuko da Espainiako estatuan.

Estatuko Gobernuak alarma-egoera deklaratu zuen, hain zuzen ere, autonomia erkidegoek pandemiaren aurrerakada gerarazteko hartu beharreko neurriak eta ezarri beharreko murrizketak aplikatzeko lege-babesa izan dezaten.

Egoera berriarekin, printzipioz, bukatu eginen lirateke etxeratze-agindua, ixte perimetrala, gune publiko nahiz pribatuetan bil daitezkeen pertsonen kopurua mugatzea edo gurtzarako nahiz bestelako guneetako edukiera mugatzea. Logikari jarraituz pentsa liteke pertsonen jarduerekin eta mugikortasunarekin lotutako neurri murriztaile oro geratuko litzatekeela segurtasun juridikorik gabe.

Bestalde, birusaren aldagai berrien kutsatzeak gertatzen ari dira; adibidez, Indiako aldagaiarekin, zeina azkarrago eta errazago kutsatzen baita. Txertatzearen erritmoa azken asteotan nabarmen areagotzen ari bada ere, kutsatzeek, ospitaleratzeek eta heriotzek ez dute etenik. Datoren hilabeteetarako ez da talde-immunitaterik espero.

Horrek esan nahi du pertsonen arteko kontaktuak murrizteko neurriak hartu beharko direla.

Nafarroako Gobernuak zer neurri aurreikusten du COVID-19aren kutsatzeak ekiditeko/murrizteko? nola bermatuko du segurtasun juridikoa?

Iruñean, 2021eko maiatzaren 3an

Foru parlamentaria: María Luisa de Simón Caballero

Galdera, 0tik 3 urtera bitarteko ikastetxeetako tarifak murrizteari buruzkoa.

GALDERA ERRETIRATZEA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko maiatzaren 3an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Adieraztea jakinaren gainean dagoela Jorge Aguirre Oviedo jaunak aurkezturiko galdera erretiratu izanaz. Galdera 0tik 3 urtera bitarteko ikastetxeetako tarifak murrizteari buruzkoa zen, eta

2021eko apirilaren 20ko 47. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen (10-21/POR-00197).

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Iruñean, 2021eko maiatzaren 3an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

